

Denboraren makina

N A G O R E I R A Z U S T A B A R R E N A

Kilometro kontagailuen 2.000 urteko arbasoa

Arrastoak

Urre sakratuak Bilbon distirutzen du



DOWNTOWNGAL-CC BY SA

Egungo odometro digitaletaraino iristeko bidea duela 2.000 urte inguru hasi zen. Baina, tartean, asmakizunak geldialdi luzea egin behar izan zuten, XVII. mendean hainbat asmatazailer berrabiarazi zuten arte.

ALEXANDRIA (EGIPTO), K.O. I. MENDEA. Heronek (K.o. 10-70), *Dioptra* lanaren 34. atalean, odometroa deskribatu zuen, hau da, ibilgailu batek bidaia batean ibilitako distantzia adierazten duen gailua. Heronen odometroak ingeniaritza mekanismo nahiko soila zuen barruan: gurdiaren gurpilaren indarrak zenbait engranaje mugiarazten zituen. Engranajeek hainbat bola biltzen zituen, eta plataforma biribil bhat, zulo bat zeukana, birarazten zuen. Biratzean bolak banan-banan zuloan erori eta, hodi baten bidez, kaxa batean pilatzen ziren. Bolak zenbatu, zegokion biderketa egin eta emaitza nahiko zehatza izan ohi zen. Antzinaroko odometroaren arabera, Hecatompyletik Alexandriara arteko distantzia, sistema metrikora ekarria, 850 kilometrokoa zen; distantzia erreala 852 kilometrokoa da.

Baina ez dirudi gailua Alexandria-ko Heronek berak asmatu zuenik. Vitruviok, K.a. 23. urte inguruan, antzeko tramankulua aipatu zuen.

Eta Estrabonek eta Pliniok Alexander Handiak K.a. IV. mendean egin-dako bidaien distantziak jaso zituzten; distantzia horien zehaztasunak neurgailu mekanikoren bat erabili zutela pentsarazten du.

Antzinako Txinan ere bazuten distantziak neurtzeko tramankulu bat eta, Erdi Aroan, Song dinastian, kontagailu nahiko sofistikatua erabiltzen zuten. Bitartean, European odometroa geldirik egon zen, XVII. mendean Blais Pascal Antzinaroko asmakizuna hobetzen saiatu zen arte. Mende horren amaieran, Thomas Saveryk itsasontzientzako odometroa asmatu zuen, 1895ean Curtis Hussey Veederrek bizikletei aplikatu zien, eta 1903an Warner anaiek autoentzako odometroa patentatu zuten.

1775ean Benjamin Franklinek posta bideak neurtzeko prototipo bat baino ez zuen egin. Baina asmatazailer ezagunaren biografia askotan berari egotzen diote ehunka urte lehenagoko asmakizunaren merezimendua.

“URRE SAKRATUA. Kolonbiako arte prehispanikoa” izeneko erakusketa Bilboko Arte Eder Museoaan dago ikusgai irailaren 4ra bitartean. 253 pieza bildu dituzte (maskarak, lepokoak, belarrekoak...) gehienak urrezkoak, baina baita zeramikazkoak eta harrizkoak ere, eta guztiak Bogotako (Kolonbia) Errepublikako Bankuaren Urrearen Museokoak. Pieza zaharrenek 2.500 urte dituzte eta berrienak europar kolonizatzaileak iritsi bezperakoak dira.

Pieza batzuk abstraktuak dira, beste batzuk figuratiboak: gizakiak, animalia errealak eta fantastikoak, naturaren elementuak. Eta bildumaren balio estetikoa nabarmena izan arren, antolatzaileek aukeraturako piezen interes antropologikoa eta historikoa azpimarratu nahi izan dute.



BILBOKO ARTE EDER MUSEOA